

Aralarko Mikel Aingeruari gurtzea. Mitologia erkatuaren saioa

JOSÉ HUARTE LERGA

Lankide guztiei

IXgarren mendetik honuntz oso garrantzi handia izan du Nafarroan Samieli¹ gurtzeak. Oso ugariak dira Samieli emandako herrietako elizak eta ermitak ere. Oso apalak gehienak, egundokoak batzutan, Lizarra, Aralar edo Izagakoak bezala. Beren harri zaharretatik mezuren bat bidaltzen digute guztiak. Baina, oraingoz Izaga eta, batik bat, Aralarkoari begiratuko diegu beren mezu berezia arakatzekotan.

I. ABIAPUNTUAK

Aralarko Eliza

IXgarren mendeko bigarren erdian, Aralarko auzogabeko lekuan, zabalguneko bakarreko eliza eraikitzen da, burua aldeanitzekoa kanpotik, biribil-erdiostea barnetik duelarik. Mendebalderuntz emandako maldan eraikia, mendebaleko aurpegian gorapearen gaineko kapera edo triguna aurkezten du, baita dorre fin bat hego-mendebaleko muturrean. Zabalgunearen erdian faxonen gaineko kupula. Eliza karoldar eraiketen eragineko barnean kokatzen da, Leyreko lehen eliza bezala, Kataluña, Frantzia eta Italiako zenbait eliz eredu direlarik ere².

Xgarren mendean eliza handitzen da. Bi alboetan beste bi zabalguneko buru biribildun eransten zaizkio. XIgarren mendean garrantzizko konponke-

¹ Nahiz eta otoitz eta kantuetan erabiltzen den izena MIKEL izan, inguruko herriek SAMIEL diote, mendebaleko haizearen izenean, adibidez: Samiel haizia; hala Barandiaranek ere.

² Uranga-Íñiguez, *Arte medieval navarro* I, 77-88.

tak ezagutuko zituen elizak eta XIIgarrenean duela urte gutxi arte ezagutzen genuen itxura ematen zaio. Ereduzkoa izan da Iñiguezek egindako azken konponketa.

Eliza ez gailurrean bertan, baizik eta zelai txiki batetan, gailurretik ez urrun, eraiki zen, 1.230 metroan, Nafarroako megalito anitz bezala: eredurik hoberena Iturkaitza-Lizarrateko megalito-barnea, Dulantzen azpian.

“Dicen que el primer proyecto de iglesia estaba concebido para construir en el paraje denominado “Bigarren Kurutzea”, antes de coronar la cima. La obra era traladada misteriosamente al lugar donde ahora se encuentra, que es donde está la cueva”³.

Historiaurrea

Nafarroako mitologia, historiaurre eta historian leku interesgarrienetarikoa bat Aralar dugu. Mendikate honen trikuharri kokagunak Euskalherriko oroitgailu megalitiko multzorik trinkoena sortzen du. Gipuzkoa eta Nafarroaren artean banatzen da. Kokagunea joan den mendeko bukaeran seinlatu zen eta handik hona zonaldeko hileta-oroitgailuen zentsua gero eta luzeago da, 53 trikuharri, 19 tumulo eta 4 zutharriren kopururaino⁴

Hauetatik oroitgailu bakoitza gurtze lekua izan zitekeen bere momentuan eta, bere multzoan, horren megalito bilketa handiak zonaldea arbasoei gurtzearen leku santua bilakatzen du. Gurtze hori, aldiaren lasterraz eta ideien mundu honen aldatze orokorrarekin batera Europako mendebaldean, aldatuz joan ziteken azpimegalitikora joateko non arbasoei gurtze askotarikoa osasun, pentze eta haziendaren emankortasun, aberastasun, ondorengo luze eta bizi honendako bukaera lasaiaren eskaeretan urritzen bait da.

Mitologia

Ezaugarri hauen zonaldean nonnahi ageri da mitoa: Herensugek Artxuetan du bere kabia, Sugaarrek, berriz Aralarreko Balerdin; Putxerriko lezea Mariren bizilekua da; Ubedi, Marirekin zerikusia duten zenbait ekintzaren kokagunea; Leizadi eta Ausa, jentilen gazteluak dira; Ba dira gogo zaharren arbolak, Pagomari bezala; basa aldareak Igain eta Amabirjinarrin; ekintza sinestezinen lekuak: Errolanek Artxuetako tontorretik 3 metroko harria bota zuen Madoz herriaren aurka, irristatu zen baina eta harria Ata ibarrean geratu

³ SATRÚSTEGUI, *El Santuario*, 203.

⁴ Oraintsu arte zentsatutako hileta oroitgailuen zerrenda Aralarren hauxe da:

TRIKUHARRIAK: Albia, Antsaretako zaparra, Aranzadi de Etxabe, Armendia, Arrate berri, Arrate illuneta, Artzabal, Ata, Ataka zar, Debata (3), Elurmenta (2), Erbilleri, Eubia (2), Garratzita, Igaratza (2), Irutzulo txikita (2), Izeniturri (2), Lerritz, Lizardigañe (2), Luperta, Maantza, Mozkordi, Mukuruko arripilla, Obioneta (2), Olaberta, Otadi, Otansur, Otsopasaje, Otsotesare, Pamplonagañe, Seakoain (2), Soiltxiki, Subarrietako gaina, Trikuharri, Txagadi, Txuritxu berri, Urdenats, Zeontza, Ziñeko gurutze, Zubarieta, Zubeintza eta Zubigoien.

HILETA MUNOAK: Abate, Arrate zar, Ata (7), Atallorbe, Desamalkor, Gaztelueta, Igaratza, Intzazelai, Lerritz, Urdaneta eta Zulueta (3).

ZUTARRIAK: Arakil, Erroldan harriya, Harriak, Igaratza (RIPA, *Momumentos megalíticos de Navarra* 1890-1990, 219. Cfr. ere BARANDIARAN-VALLESPÍ, *Prehistoria de Navarra*, 148).

zen."Errolan harriya" da, giza itxurazko harri zakil puntaduna, Atan zentsatutako 4 zutarritatik bat; Saltarri Murumendiko Alotza larretik Beasain eta Itsasondoren aurka jentil batek jaurtitako harria da; Leze ospetsuak, Albikoa bezala nondik gaizkileen arimak infernura erortzen bait dira⁵; eta abar.

Mito hauetarik askok paleolito garaietik bere erroak dakartza. Ba dirudi hori aditzera ematen duela, leize arakatu edo arakatu gabeko hauen inguruko zonaldetan, mitologia askoz ugari eta sendoagoa izateak⁶.

Don Teodosioren pasadizoa⁷

Bere edukia honela labur daiteke. Badator Goñiko zalduna musulmanen aurkako gduetatik. Etxetik hurbil ermitari batekin topo egiten du eta berarengandik andrearen saldukeria ezagutzen du. Andrea ta maitalea hil beharrean gurasoak hiltzen ditu. Erromara doa erromes, non Aita Sanduak barkatzen bait dio, sekulako kateak eramateko penitentzia imposituz, katea berez erori arte. Erromesatz dabil Goñi eta Aralarreko mendietatik. Aralarreko larrean dragoi baten eraso jasaten du, baina zeruko printzearen agerketak dragoi eta kateetatik askatzen dio, horregatik han bertan eliza eraikiz Mikel aingeruari ohorean. Elizan bertan ehortziko zen 714 urtean. Ba da pasadizoaren aldaeraren bat zaldunaren eriotza 1.099 urtean ematen duena. Oinarrizko pasadizoa ez da Aralarreko lehen eraiketaren datatik urrunegi. Bigarrena azken konponketaren datarekin bat datorke.

Zenbait aldaera du pasadizoak⁸ eta honek pentsatzera eramaten gaitu tradizioaren mamia aintzinakoa izan daitekela, nahiz eta Aita Burgik aurkeztutako era XVI-XVIIgarren mendekoa izan. Penintsula iparreko erresuma jaio berriak gutxi eta gaizki finkatutako egoerari oinarri eta justifikapena emanaz saiatzen ari ziren, iparreko erraldoi karoldarren ereduari jarraituz, Al Andalus gero eta jasanezinago aurkezten den heinean batik bat.

Aralarreko aingeruaren ikonografia

Aralarreko aingeruaren agerpen plastikoa jator eta bakarra da Ekialde eta Mendebaldeko Mikel arkanjeluen agerpenen multzoan. Geroago arkanjeluen agerpenen multzoari buruz mintzatuko gara, baina hemendik bertatik buruaren gainean gurutzea eramaten duen Mikel aingeruaren agerpena nafarrokoa, berezkoa dela aurrera dezakegu. Hauetarik lehena Bilator-tan dugu, Xgarren mendekoa, oso zakar erliebea, Bilator-tako Samielen ermitako paretan beste agerpenekin batera berrerabilia izan zena⁹.

Agerpen honetatik Aralarko santutegian gurtzen dugun azken barrokoaren irudira mendeen zehar eramaten gaitu zuzen ongi testifikatutako tradizioak.

Izagako Samiel

Izagako Samielen elizari buruzko lehen berri fidagarriak 1.084koak dira. Oraintxe bertan gure begietan eraikirik agertzen dena gerokoa dirudi eta

⁵ BARANDIARÁN, *Diccionario*.

⁶ BARANDIARÁN, *Las cavernas*, 322-323.

⁷ CARO, *La leyenda de D. Teodosio de Goñi, lan bikaina benetan*.

⁸ BARANDIARÁN, *Diccionario* s.v. SAMIEL.

⁹ URANGA-ÍÑIGUEZ, *Arte medieval navarro I*, 114-119.

oraingo eliza aintzinakoagoaren, jatorri eta eraiketaren data ezezagunaren ordezkoa dela uste dugu.

Garrantzizko litzateke eliza eraiki dela “al modo de la iglesia de San Miguel de Excelsis” seinalatzea, Zuatzuko jendeek, noren eliz nagusiaren pean Izagako eliza bait dago, XVIgarren mendearen amaierako alegatu batean erraten duten bezala¹⁰.

Zenbait tradizioko pasadizok lekua aberasten dute:

a. Izurrite handiarengatik eraiki izan da jatorrizko eliza, San Gregorio Handiari VIgarren mendeko azken urteetako Samielen agerpenaren arrazoia-rekin bat etorritz¹¹.

b. Eliza gorago kokatu nahi zuen eraiketaren lehen asmoak eta hala hasi zen eraikitzen, baina egunean ipiñitako harri guztiak bere lekutik higituz, orain dauden lekura joaten ziren gauean. Egunez egun honela, zeruko seinalea zela eraikitzailei bururatu eta asmoa aldatu arte.

d. Handik harri handi bat bota zuen Orreagaren kontra Santson indartsuak, oso haserre. Irristatu zen baina, zorionez, behi kakan eta harria Urroza bakarrik heldu zen.

e. Samielen irudiaren bati “el criadico” erraten zaio oraintxe arte zio ezezagunarengatik. Baliteke maiatzean mendira bidaltzen delako, lehenagoko artzaikoak hazienda zaintzera mendira bidaltzen ziren bezala, irailaren 29ra arte, berriz herriratzeko data. Baliteke, bi irudi, bata ederrago eta bestea arruntago delarik, arruntagori “el criadico” erran, ederragoa nagusia izanez.

Hilerrien ondoko elizak

Aintzinako hilerrien ondoan eraiki dira zenbait eliza, Eslabako eliza nagusia bezala, erromatar garaiean jadanik zen hilerri ondoan, XIIgarren mendean. Uxueko “eliza zaharra”, agian beste baten ordezkoko XIIIgarren mendekoa, zeinek “merece particular atención por conservar todavía en sus costados muchos sepulcros”¹². Agian Donamartiri-Untzekoa, XIIIgarren mendekoa ere. Eta beste anitz Nafarroan zehar, hilak Samielen gerizapenpean ipini dituztenak.

Folklorea

Folklorearen Samieli ohoreko agerpideen artean Erribera Beherako “El dance” edo “Paloteado” izeneko dantza da nagusi. “El dance”k deabruaren aurkako arkanjeluaren borroka antzesten du kasu anitzetan. Antzeko dantza Kortez, Monteagudo, Korella, Kabanillas, Kaskante, Fustiñana, Murtxante, Ribaforada, Aragoiko herri urran anitzetan, baita Oñati, Markina eta Iurretan egin da Samieli ohorean. Nahiz eta ezberdinak izan herri bakoitzean, funtzeskoan dantza berbera da herri guztietan. Korteskua lau zatitan banatzen da: “cortestas”, “cambio de filas” eta “paloteado” “entrada” eta “pasacalles”ekin. Fustiñana eta Oñatin “trajeados a la antigua usanza, con sayales vistosos, justillos fantásticos, calzas con cintas y cascabeles y otros adornos” ageri dira dantzariak¹³.

¹⁰ PÉREZ, *Ermitas de Navarra*, 268; LÓPEZ, *Contribución*, 187.

¹¹ Bibliotheca Sanctorum, Michele, 422.

¹² PÉREZ, e.i., 238-240.

¹³ BARANDIARÁN, *El dance de Cortez*; ARRARÁS, *Danzas de Navarra*, 176; ARAMBURU, *El dance o paloteado*, 35-90.

II. SAMIEL/HERMES-MERKURIO

Samiel idazki kanonikoetan

Bost pasartetan bakarrik ageriko da Bibliaren idazkietan, izen eta guzti, Mikel arkanjeluaen aipamena. Haietatik bost ideia nagusi atera daiteke:

Gorena ez bada, printze gorenatariko bat da Miel zeruko zerbitzarien hierarkian.

Jaungoikoari laguntza eta euskarria Jainko herriaren errege etsaien aurka.

Herriko semeen defendatzailea.

Giza gorputzaren arduraduna.

Zeruko armadaren buruzagi nagusia, Dragoiaren armadaren garailea.

Daniel 10.13. "Pertsia erresumako printzeak 21 egunetako hauskaiztasuna egin dit. Baina Mikel, printze handienatariko bat laguntzan etorri zait. Han utzi dut, Pertsia erregeen ondoan"¹⁴.

Bederatzi aingeru mota azaldu da Biblian zehar¹⁵: Arkanjeluek, Kerubinak, Serafinak, Ahalmenak (potestates), Birtuteak (virtutes), Menerapenak (dominationes), Tronuak (throni), Printzerriak (principati) eta Aingeruak. Arkanjeluek, aingeruen artean motarik altuena betetzen dute¹⁶. Arkanjeluen zenbakia eta izenen zerrenda aldakorra da. Hona hemen bat: Uriel, Rafael, Ragüel, Miel, Saraqael, Gabriel eta Fanuel, etiopear Henoc liburutik hartua.

Daniel 10.20-22. "Eta orain Pertsia printzearekin berriz burukatuko dut: bukatu orduko Iabaneko printzea badatorrela ikusiko duzu. Inork ez dit laguntzarik ematen horretako, Miel zuen printzeak ez bada; nire eustarria laguntza emateko eta eusteko"¹⁷. Iaban izenarekin Grezia izendatzen da. Handik Alexandro Handia Akemeniden erresuma gainditzeko eta sunsitzeko etorriko da¹⁸.

Daniel 12.1. "Garai hartan Miel printze handi zure herriaren semeak defendatzailea ageriko da. Ordu arte sorlekuek ezagutu izango ez zuten beste bezalako hestutasun garaia izango da hori. Garai hartan zure herria salbatuko da, liburuan inskribatutako guztiak"¹⁹.

Iudas 9. "Mikel arkanjelua, berriz, Moisesen gorpuarengatikako tirabiran deabruarekin burukatzen zuenean ez zen ausartu beraren aurkako erizpen iraingarririk botatzera, baizik eta "zigor zaitzan Jainkoak" erran zuen"²⁰. Judasek "Moisesen Jasokundea" apokrifoa gogoratzen du. Liburu honetan deabruarekiko Mikelen eztabaida patriarkaren gorpuarengatik kontatzen zai-gu²¹.

¹⁴ Biblia de Jerusalén.

¹⁵ Biblia de Jerusalén. Oharrak.

¹⁶ HAAG, Diccionario de la Biblia s.v. "ángel" eta "arcángel".

¹⁷ Biblia de Jerusalén.

¹⁸ Biblia de Jerusalén. Oharrak.

¹⁹ Biblia de Jerusalén.

²⁰ Biblia de Jerusalén.

²¹ Biblia de Jerusalén. Oharrak.

Apokalipsia 12.7-8. "Orduan gudua hasi zen zeruan. Mikel eta bere aingeruek dragoiarekin burrukatu zuten. Baita dragoi ete bere aingeruek borrokatu zuten ere, baina ez zuten gainditu eta ez zen jadanik haiendako lekurik zeruan"²². Honako testu hau emaitzarik handienekoa izango da Mikelen agerpide plastikoetan, mendebaldean batik bat. Haietan arkanjelua aingeru bihurrien armadaren garailatzat, eskuetan ezpata edo lantza daramalarik ageriko da.

Samielen irudi ahula eskeintzen digute testu kanonikoek. Ba du Samielek, berriz, kristau mitologiaren irudirik aberatsenatariko bat. Nondik dator kio ezaugarri horren aberastasun handia?. Hein handi batean testu apokrifetatik, Liturgiatic, tradiziotik eta baita hil-mundu, abeltzantza eta nekazaritzaren jeinu eta jainko zaindarekin berdinketatik ere.

Mikel aingerua testu apokrifo, Talmud, targum eta Elizako idazki aintzinakoetan²³

1. Miel Sorraldiaren kirian.

Lehen sortua Beliar da. Bigarrena Miel bera. Jaungoikoaren aurka altxatzen da Beliar eta Mielek beheko erresumetara bildatzen du. Horrez gero lehen sortutzat agertzen da. EB, 122.

2. Miel Jaungoikoari goraiamenak kantatzen dizkion koruan.

Jaungoikoaren inguruko Koruan Jaungoikoaren goraiamenak kantatzen ditu Mielek orain eta betiko. L1H, 68.

Adan eta Jaungoikoaren arteko abenikoaren hymnoa kantatzen du Mielek. EB, 212 eta j.

²² Biblia de Jerusalén.

²³ Hauxe da apokrifo arakatutakoen zerrenda:

AAT DIEZ MACHO. Apócrifos del Antiguo Testamento. 5 vols. Ediciones Cristiandad. Madrid 1983.

VAE FERNÁNDEZ, V.N. "Vida de Adán y Eva" (Apocalipsis de Moisés). Versiones griega y latina. In AAT II, 317-352.

AJ ARANDA, G. "Apócrifo de Jeremías sobre la cautividad de Babilonia". In AAT II, 385-442.

OS SUÁREZ, E. "Oráculos sibilinos". In AAT III, 239-396.

L1H CORRIENTE, F. y PIÑERO, A. "Libro 1 de Henoc" (Henoc etíope y griego). In AAT IV, 11-143.

L2H DE SANTOS, A. "Libro de los secretos de Henoc" (Libro 2 de Henoc, Henoc eslavo). In AAT IV, 145-202.

L3H NAVARRO, M.A. "Libro hebreo de Henoc" (Libro 3 de Henoc, Henoc hebreo, Sefer Hecalot). In AAT IV, 203-291.

TL PIÑERO, A. "Testamento de los doce patriarcas": "Testamento de Leví". In AAT V, 9-158.

TM VEGAS, L. "Testamento de Moisés" (Asunción de Moisés). In AAT V, 215-275.

TI ARANDA, G. "Testamento de Isaac". In AAT V, 279-303.

TJ ARANDA, G. "Testamento de Jacob". In AAT V, 305-322.

TS PIÑERO, A. "Testamento de Salomón". In AAT V, 323-387.

TA VEGAS, L. "Testamento de Abraham". In ATT V, 439-527.

EB KAESTLÍ, J; CHERIV, P. "L'évangile de Barthélemy". AELAC Brepols, 1993

AI MORELLI, E. "Ascensión d'Isaïe". AELAC Brepols, 1993.

PH RUIZ, D. "El pastor" de Hermas". In Padres Apostólicos. BAC. Editorial católica. Madrid, 1950, 889-1.092.

3. Zeruko administraria.
"Nire administrari zintzoa" erraten dio Mieli Jaingoikoak. AJ, 414-416.
4. "Prepositus Paradisi" a Jainkoaren izenean.
Adani, Jainkoaren irudiari gurtzea agintzen dio aingeru bihurriari Mielek. VAE, 341.
Bera da, zazpi zeruetatik, baten arduradun printze txit eder, miresgarri, hooragarri, bildurgarria. Jaungoikoaren egoitza den zazpigarren zeruaren arduraduna hain zuzen. L3H, 239-240.
Beliarri Adanen aurrean bere burua makurtu agintzen dio. EB, 128.
5. Zeruko armadaren buruzagi nagusia.
Ainzindaririk gorena da. AJ, 435-36.
Gizon zuriaren formapean abere formak hartu dituzten aingeru bihurriak gainditzen ditu lurreko leize sakonera bultzatuz. L1h, 112. Horrez gero lau-zangoaren gainean igateari uko egiten dio. TA.
Buruzagien "artzaia" da. L2H, 180.
6. Zinaren zaindaria.
Zinaren, zerengatik Sorraldia izan bait zen zaindaria da. L1H, 92.
Jakueri Isaaken bedekapena legezatzten dute Miel eta Gabrielelek. TI, 291.
7. Kristo gizonaren babestailea da.
Horixe da bere betebeharririk lehena. EB, 103-104.
8. Izadiaren jauralaria.
Zodiako kiriaren dekanoa den Ryaxen ahala usteltzen du. TS, 362.
9. Jainkoaren mezularia.
Adani Jainkogandikako mezua eramaten dio. VAE, 325-326.
"Nire ospe haundiko berri onen eramailea" erraten dio Jainkoak. AJ, 414-416.
Nabukodonosorri herri judutarra hartu eta Babiloniara eramantzen dio. AJ, 414-416.
Bidalia da Miel Semyzarengana bere sunsitzearen berri ematera. L1H, 47-48.
Henoc eta Jainkoaren arartekoa da. L2H, 180.
Eriotz urranaren berri ematen die Abraham, Isaak eta Jakueri. TA, TI, 290 eta TJ, 314-315.
10. Giza gorputzaren arduraduna da.
Nabukodonosorren bihotza ikutzuz jainkozko samindura sartzen dio. AJ, 414-416.
Gizonak lotu beharko ditu 70 belaunaldiz lurreko mendien azpian azken hauziko egunera arte. L1H, 47-48.
Henoc aitazarrari laguntzen dio Txit Gorena ezin ikusteagatikako zorbioan. L1H, 80.
Deabruarekin Moisesen gorpuarengatikako tirabirak. TM-ko pasarte galdua, baina ongi testifikatua: Alexandriako Didimogan: In epistola Iudae enarratio; Ebodiogan: Epistola ad Augustin; Gelasio, Apolinar, Sebero eta Ekumoniogan ere. TM, 220-221.

11. Herri aukeratuaren gobernu eta gerizapena daukana.

Ahala eta gobernua du Mielek Jainko herriaren gainean. Legea ezartzen du sinistunen bihotzean. PH, (Comp. 8, 3.3).

Arau eta kirian ezartzen du Adanengatikako progua. VAE, 337-349.

Bere karguan uzten du Jainkoak Adanen arima. VAE, 349.

Ieremiasen inguruan biltzen du Judako herria aberrira bihurtzeko Babiloniatik. AJ, 435-436.

Herriaren zapalkuntza eta gaiztakeria deseustatu beharko ditu Zuzentasun eta Egiaren urtumea ager dadin. Gaiztakeria ontasuna bilakatuko da. Zuzentasun eta Zoriontasuneko erresuma izango da. L1H, 47-48.

Gizarte eta herriaren zatirik onenaren arduraduna da. (herri judutarra lehenago, kristaua gero). L1H, 56-57.

“Israelgo herriaren aingeru arartekoa naiz, suntsi ez dezaten, izpiritu gaizkile guztiak haren aurka joaten direlako. TL, 49 (daitekeena).

Ahalez jantzia da Jainkoak herri aukeratuaren mendekaritzat. TM, 268 (daitekeena).

Jakueri laguntzen dio haurtzarotik arriskuak uxatuz, ondasunez bete izanez, bedeinkatuz. Baita eriotzaren hestualdian laguntzen dio. TJ, 314-315.

12. Herri aukeratuaren epaikaria.

Gizonaren bihotza arakatzen du legea bete ote duen ikusterakoan. PH, (Comp. 8, 3.3.). Gizonaren jokaera ezagutzen du. OS, 283.

Gabriel, Rafael eta Urielekin batera gaiztakeriaren aurka epai eta eragin dezake. L1H, 47-48.

Epaikari urrikalkor eta igurikalkorra. L1H, 68, 90; TA batez ere.

Olio sailduaz igurtzita Epaiaeren makila ematen zaio. TL, 51.

13. Etorkizunaren berri emailea.

Herri aukeratuaren salbamenduaren berria. VAE, 328.

Adanen eriotzekoa. VAE, 328, 347.

Kristoren etorrerakoa. VAE, 347.

Adanen barkaziokoa. VAE, 349.

Azken Epaieko tronua erakusten du. L1H, 60-61.

Azken Epaieko egunaren berri ematen du. L1H, 80.

Aingeru bihurrien zigor antzekoa iragartzen die erregei. L1H, 89-90.

Azken Epaia erakusten dio Abrahami. TA.

14. Hilen arimen eramailea.

Adan paradisura eramaten du. VAE, 335.

Jaungoikoarengandik Adanen arima hartzen du paradisura eramateko. VAE, 349.

Gabriel, Rafael eta Urielekin batera ilunetik hauzitegira eramaten ditu hilen arimak. OS, 283.

Henoc gidatzen du izkutu eta arkanuetaraino. L1H, 94. Gero Txit Goranganaino eramaten du. L2H, 172.

Adan zeruetara eramaten du. VAE, 347.

Isaak ere zerura darama eta errudunen zigorra erakusten dio. TI (daitekena).

Jainko eta Rafaelekin batera Jakueren arima paradisura eramaten du. TJ, 318.

Abraham eramaten du eta izadia erakusten dio. TA.

Abrahamen arima paradisura darama. TA.

Mariaren arima eramaten du zerura Aita eta Semeari lagunduz. EB, 202.

Adan eta Eva zerura daramatza. EB, 210.

Antzeko berriak Kantuetatik Kantaren targumean, Zohar eta Rabbi Eleazarengan, Liturgia Romana Vetus-ean, Jelasioaren Sakramentutegian, Tourseko Gregoriotan, Basilioaren Menolojioan, Urrezko Kondairan, Gregorio Haundiarengan etab.

15. Askotariko betebeharrak betetzen ditu Jainkoaren izenean.

Siriako liguzko 3 maindiri dakartza Evaren gorpua biltzeko. VAE, 336.

Evaren gorpua lurperatzen du. VAE, 337. Baita Abrahamena ere Manbren. TA.

Paradisuko soinekoa imosatzen dio Henoc-i. L2H, 172.

Turuta jo eta ba doa aingeruen tropelaren erdian Isaak-en bila. TI, 301.

Lau lurretatik lurra daramakio Jainkoari Adani forma emateko. EB, 128.

Elizako eta Espiritu Sainduaren aingeruekin Kristoren hilobiko losa eragiten dute. A I, 112. Mariaren hilobiko losa eragiten du ere sasi-Meliton "Transitus Beatae Mariae Virginis"-ean.

Esandako 3 aingeruk bizkar gainean Kristo biztua daramate. AI, 112.

Samiel Elizaren Liturgian

1. Aingeru "Signifer", Kristoren ikurra, gurutzearen eramailea. Honela dio hiletako eskaintza (ofertorium).

"..sed Signifer Santus Michael..."

2. Hilan arimak ilunetik zeruko argira eramaten dituen aingerua. Baita hiletako eskaintzaren testu liturgikoa:

"..sed Signifer Sanctus Michael repraesentet eas in lucem sanctam quam olim Abrahae promisisti et semini ejus".

3. "Angelus turiferarius" edo intsentsontziaren eramailea.

Jatorrian Gabriel arkanjelua izan zela dirudi, baina goiz iragan zen hairengandik Mikelengana ezaugarria. Hona hemen intsentsua bedeinkatzeko meza nagusietan erabilitako testu liturgikoa:

"Per intercessionem Beati Michaelis Archangeli stantis a dextris altaris incensi et omnium electorum suorum incensum istud dignetur Dominus benedicere..."

Eta irailaren 29ko Samieli ohoreko eskaintzan:

"Stetit angelus justa aram templi habens thuribulum aureum in manu sua eta data sunt ei incensa multa et ascendit fumus aromaticum in conspectu Dei".

Herri tradizioa eta Mieli gurtzea

Hein haundi batean literaturari zorduna da herri tradizioak eraikitzen duen Samielen irudia. Interesgarri da, hala ere, azentua non ezartzen duen ikustea.

1. Hauzitegiko balantzaren arduradun aingerua.

Aintzinatik Egiptoko gnostikoen tradizioak sartu ditu Samielen irudi orokorrean Hermes eta Tot jainkoei egokitutako ezaugarriak. Haietariko bat hauzitegiko balantza erabiltzea. Arimen pisaketaren erakuspena naharo da Egiptoko hilobietan. Osiris, lehenagoko hezetasunaren, naturaren jainko, urtero hil eta berpizten zenaren aurrean egiten zen hauzia. Osirisen inguruan hilen 4 epaikariak. Pisaketaren balantza erabiliz Tot jainkoa. Hila hauzigelan sartu eta pisatua da: balantzako platertxo batean hilaren bihotza, bestean luma arin bat²⁴.

Hermes jainkoak parte hartzen du ere arimen pisaketan. Emankorra izan da benetan irudia Erdi Aroan batez ere.

“Mucho aprecio en el juicio
de Dios tu virtud alcanza
pues te fía la balanza
para hacer de juez oficio
pesando virtud y vicio
del grande y el pequeño”²⁵.

2. Hilan arimak aurkeztailea.

“San Miguel arcángel
gran batallador
presenta las almas
al tribunal de Dios”

Eslabako herri kantan erraten genuen bezala.

3. Gurutzearen eramailea.

Smolenskaiaren irudian (Betiko sorospen Ama Birjinaren irudi herrikoia) Mikel eta Gabriel arkanjeluek Pasioko tresnak erakusten dituzte, baita gurutzea ere, zer esanik ez. Gure artean Samieli irudirik badagokio hauxe da, dudarik gabe. Gurutzea zutik, buru gainetik bi beso jasota eramateko ohitura Nafarroako zenbait erromeriatan ba liteke zer ikusia izan Aralarreko irudiarekin.

Samielen izena: Mi-ka’el, ‘nor Jauna bezala’. Herritar tradizioan hauxe zen Samielen oihua ilunetako printzearekin burrukan sartzerakoan:

“Quién como Dios
nadie como Dios.
San Miguel arcángel
gran batallador...”

²⁴ JUNKER, *La religión*, 552-560.

²⁵ Izengabekoa, Gozos.

Eslaban kantatzen genuen bezala. Sustrai sumero-akadiarrak izaten bide ditu izenak: Sumerreko Nippur hirian, Enlil eta Nindil bikoteari emandako “é-kur”-ean “Nor Enlil bezala” hitz-ikurrari gurtu zitzaion²⁶.

4. Zeruko armadaren buruzagia.
Oso irudi hedatua Mendebal osoan.

“De la escuadra celestial
sois el primer coronel
que al atrevido Luzbel
venciste en guerra campal
echando al fuego infernal
su rabia y furioso anhelo:”²⁷

“Agur Mikel aingeru
agintari haundia...”²⁸.

5. Miel mezularia.

“De la escuela de María
fuiste el cabo principal
y embajador especial
de quien Cristo se valía
cuando a su madre quería
dar en el mundo consuelo:”²⁹

6. Lan aunitz egiten du Mielek Jainkoaren izenean:

“Las empresas más gloriosas
fía Dios a tu destreza
y emplea tu fortaleza
en las más dificultosas;
haces obras tan pasmosas
que admiran la tierra y cielo:”³⁰.

7. Herri sinestunaren babestailea.

“Abogado y protector
de la Iglesia militante,
cuida siempre vigilante
de darle auxilio y favor
y cuando el riesgo es mayor
tanto es mayor tu desvelo:”³¹.

²⁶ SCHNEIDER, *La religión*, 380.

²⁷ Izengabekoa. Gozos.

²⁸ Izengabekoa. Aralarreko kantak.

²⁹ Izengabekoa. Gozos.

³⁰ id.

³¹ id.

8. Erromes eta ibiltariei geriza ematen die.

“Vos al pueblo de Israel
sacaste libre a buen puerto
y guiaste en el desierto”.

Untziti, Ibargoiti eta Izagaondoko ibarretan kantatzen den bezala.

9. Osasunaren zaindaria.

Eskulapiori lekua “ken” izan diezaioke Samielek Hestiaren lur adarrean, Bosfororen gainean³².

Arkesinen aurkeztutako berunezko safla batean tokor gaiztoen aurkako zenbait konjuro irakur daiteke. Beste arkanjeluen artean Samieli oles egiten zaio³³. Nafarroako tradizioak Samielen laguntzaz Pedro Lehenaren potroeta-ko tokor gaiztoa sendatu zela kontatzen digu.

Izugarrizko izurritea zela eta badator Samiel erromatar herriaren laguntzaz Gregorio Haundiaren (590-604) ametsetan ageriz. Izagako tradizioari jarraituz izurrite batengatik eraiki zen eliza.

Aralarreko elizan, barneko elizatzxoan, zulo bat da, izaterik gabeko leize sakonaren ahoa. Zulo horretan burua sartu eta buruko minak betiko sendatu dira. Gogora dezagun “Salomonen testamentua” apokrifoaren arabera Samielek Ryax aingeru bihurriaren ahala ezabatzen duela eta Ryax hori buruko minen eramailea dela.

10. Ugalkortasunaren emailea.

Nilo hibaia Samielen gerizapean jarria zuen Alexandriako Elizak; bere patriaren jaia Niloko urteko uholdeak hasten diren egunetan ospatzen zuen. Jakina, deltako emankortasunarekin Niloko uholdeen zerikusia³⁴.

Samieli gurtzearen azentua inon ipini ba du gure herriak ezaugarri honetan da, dudarik gabe. Samielek emakume, pentze eta haziendari ugalkortasuna dakarkie. Azken konponketaren artera Aralarreko elizan ba zen zolako losa berezi bat. Emakume antzuek emankortasuna lortzen zuten Samielgandik losa horren gainean meza entzunez.

Haur edoskitzaileak Samielen aurrean aurkezten dira Aralarreko irudiak Nafarroako herri askotara egiten dituen egonaldietan.

Pentzeak, ekaitz eta plagak uxatzekotan, bedeinkatzen ditu Samielen irudiak:

“Pregunta: ¿Qué prodigios ha obrado San Miguel en pro de los Navarros?

Respuesta: Muchísimos, tantos que no cabrían en un gran libro.

2a: La conservación de los frutos, preservándolos de insectos...

...

Pregunta: ¿Qué se entiende por la conservación de los frutos por San Miguel?

³² Bibliotheca sanctorum, 417.

³³ id.

³⁴ Bibliotheca sanctorum, 419.

Respuesta: Que muchos valles y pueblos crecidos desde hace siglos, acostumbran a llevar al Santo Arcángel, con el cual bendicen los campos; y se ha observado que si las plantas están inficionadas bien del pulgón, langosta, etc. desaparecen en vista de dicha bendición³⁵.

Aralarrera joaten da errogatibetan uztendako aroen jabala eskatzera. Samielen sarrerak maiatzaren euri emankorrekin bereziki lotuak daude guztion gogoetan:

“Pregunta: ¿Qué prodigios...

Respuesta: Muchísimos... los frutos... dándoles aguas cuando lo han necesitado.

...

Respuesta: Muchos valles y pueblos... si carecen de aguas lo logran por su intervención³⁶.

Santutegiaren euspenari laguntza ematen zioten Aralar inguruko herriek uzta zatiren batekin. Herri horien garrantziko bilketak santutegian udaberrin eta udan zehar egiten ziren, Larunbet-letari, Igankunde ondoko larumbatekoa bezala. Baina ikusten ari garen Samielen ezaugarriarendako garrantzirik haundiena du Asolbizio Egunak. Irailaren lehen igandean ospatzen da Aralarreko elizan. Mugiroko D. Miel Astizi zor diot gero ongi baiezaturikako jai honen mamia uzta bilduengatik eskerrak ematea dela berria. Asolbizio-garbikuntza/uztengatik eskerrak ematea. Garrantziko da ideia hau azpimarratzea, garbikuntzaren jai, “hircus emisarius”-en gainean aintzinako gizarte abeltzain eta nekazarien utsuneak kargatzen zuenak uztekin zerikusia zuelako: Israelen “Yom kipur”-en jai “tisri” hilabetearen, ereintza aroan ospatzen zen bi akerren sakrifizioz, Ugariteko boli batean emankortasunaren jainkosaren alboetan agertzen diren berberak³⁷.

Aralar inguruko herrietan, irailaren 29ko mezatan, ereintzako bihiak bedeinkatzen dira: arto, garagar, olo eta garia, Satrusteguik dioenez^{37bis}.

Laburbilduz hauexek izan daitezke Samielen irudiaren alderdiak:

Zeruko printzerik gorena.

Jaungoikoari laguntza eta euskarria.

Zeruko armadaren buruzagi nagusia, ilunetako printzearen garrailea.

Aingeruen koruan parte hartzen du.

Administrari zintzoa.

“Prepositus paradisi”.

Zinaren zaindaria.

Izadiaren gobernaria.

³⁵ ARRAIZA, *Un catecismo*, 396.

³⁶ id.

³⁷ HAAG, *Diccionario*, 1952.

^{37bis} SATRÚSTEGUI, *Reminiscencias*, 292-93.

Jaungoikoaren mezularia.
 Kristoren babestailea.
 "Signifer", gurutzearen eramailea.
 Intsentsontzia erabiltzen duena, "Angelus turiferarius".
 Herriaren epaikaria.
 Epaiaren balantzaren arduraduna.
 Erromes eta ibiltarien geriza
 Etorkizunaren berri emailea.
 Hilén arimak eramailea.
 Herri sinistunaren babestailea.
 Giza gorputzaren arduraduna, osasunaren babestailea.
 Emankortasunaren erakarlea.

Done Mikel ikonografian³⁸

Iradokimen gnostikoko harri bitxietan agertzen dira Samielen lehen erakuspenak. Ekialdean zuriz, batzutan gorritz jantzita, eskuan zetroa daramatelarik erakusten dira aingeruak. Bizantzion, berriz, zutik, purpurezko klamidez (gorte inperialeko "loros" a) jantzita, egaldunak, bizargabekoak, hieratikoak, zetro eta lur globo edo labarodunak, itxura gerlos gabekoak erakusten dira, deabru edo dragoia agertzen ez delarik, British Museum-go 5garren mendeko boli batetan edo Rabenan, S.Apolinar "in Classe"-n agertzen den bezala. Smolenskaiaren irudian (Betiko Sorospen Ama Birjinaren irudi herritarra), amaren bi aldetan Gabriel eta Mikel, Pasioko tresnak eta gurutzearamanez daude, bata berdez, bestea gorritz jantzia.

Mendebalean, Erdi Aroko erakuspenek itxura gerlosa daramate gehienetan. Garganon zutik, deabrua lanzatuz, soineko luzez, zurrun eta hieratikoak ikusten dugu. Erakuspen honek tradizio luzea, kopto eta arabiarren erakuspenetan oinarritua (El khidr) du. Mendebal osotik hedatzen da Garganoko irudia, batzutan ezkutuz lagundua, Lizarrako Samielen elizako atarian bezala.

Arkanjelua harmaduraz estaltzen du Berpizkundeak P. Bruegel, Giambono edo Del Sartoren pinturetan. Barrokoan harmadura hori jantzi zabal haizez higituz estaltzen dira berriz.

Mikel pisatzailea, balantza eskuan (batzutan Jainkoaren eskuetan) Lizarrako Samielen goiz agertzen da, XIIIgarren mendeko lehen urteetan, Torcelloko "duomo"n bezala. Erakuspena herritarra da XIV eta XVgarren mendeetan Herbehere, Alemania eta Ingalaterran (Van der Weyden eta Memlingen Azken Hauziak).

Etorkizunaren berri emailtzat, heriotza urranaren berria Mariari emanenez Charlieuko janlekuan agertzen da Mikel, baita Angresko beirategi batean, Ducciore "Maestá"n, Lippiren "Izpiritu Sanduaren Madona"n ere.

Aralarreko irudia gurea da berez, lehen esan dugun bezala.

³⁸ Bibliotheca sanctorum.

Samiel herritar erakuspenetan

Erribera Beherako herrietan, Oñatin, Iurretan, Markinan, esate baterako, Euskalherri osoan Samielen garaitia ospatu da aire zaharreko dantzetan. Haietariko batzuetan, dantzariak gainera, beste zenbait figura agertzen da: "Mayoral" a (maizterra, artzai nagusia), "Rabadán" a (Nafarroako beste lekue-tako "repatán" a, artzaikoa), Deabrua eta Aingerua. Aingerua Samiel da, zer esanik ez. Aingeruaren itxura lehen komunioko neskatila batek guztiz zuriz jantzita ematen du.

Samieli kultoaren zenbait bereiztasun Ekialde eta Mendebaldean³⁹

Samiel Hermes-Merkurio jainkoaren tasunekin aurkezten digute gnostikoen erakusketek.

Gorago zertxobait esana dugu Samielen ohorean Hestiaren lur adarrean, Bosfororen gaineko Kostantinoren eraiketari buruz. Leku horretan loegiteak, Eskulapio babestaile, egiten ziren.

Kartagon Samielen izena idazki gnostikoak daramatzen Merkurioaren estatuatxo baten azpian agertzen da.

Moskuko "kremlim"eko hileta eliza Samieli emana da.

Samieli kultoaren jatorri ekialdekoa nabari da Mendebaldean. Garganotik sar zezaken Italian. Gogora dezagun Apulia Italiako zonalde bereziki megalitiko delako, baita zonalderik helenizatuena. Garganoko gunea kulto honen hedaila izango zen Vgarren mendetik aurrera. Santutegia leize batean eraiki zen.

Sabinako Tanzian, leize batean eraikitako santutegiak aintzinako kristau aurreko orakuluaren lekua hartu zuen.

Nemiko laku gaineko harkaitzeko leize batean oso eliza zaharra, Samieli emana zen.

Erroman, San Gregoriori agerkundea gogoratzeko Adrianoren hiletxe gainean eliza txiki bat, Garganoko ereduaren arabera eraiki zen. Beste bat Augustoren hiletxean. Biak Samieli emanak. "Sancti angeli inter nubes" ospatzen ziren.

Garrantzizko ehortzi megalitikoak estaltzen ditu Mont Saint Michelen eraiketak. Frantzian bertan Samieli emandako zenbait santutegik Merkuriori kultoaren lekua hartu du, Saint Michel Mont Mercure-n bezala. Baita Alemanian Bad Godesberg-en, Bon inguruetan, horrelako ordezkatzeari egin da ere. Alemaniako beste zonaldeetan germaniar olimpoko beste jainkoen lekua harrapatu du Samielek.

³⁹ Bibliotheca sanctorum

⁴⁰ Hermes en ezaugarri buruz zera ikus daiteke:

ROSE, *Mitología*, 37, 43, 60, 61, 66-68, 86, 109, 111, 113, 118, 120, 130, 136, 145-149, 160, 161, 167-169, 171, 176-178, 180, 200, 210, 214, 217, 221, 241, 265, 267, 268, 274, 277, 278, 296, 323.

GUERBER, *Grecia y Roma*, 119-126.

PRÜMM, *La religión*, 25-26.

Hermes-Merkurioren ezaugarriak⁴⁰

“De bello gallico” izeneko liburuan Zesarrek zera dio Akitaniako erlijio-ari buruz:

“Deum maxime Mercurium colunt” (v l.)⁴¹.

“Merkurio horrek induztia eta negozioa erakutsi zeiezten gizoneri; bi-deak zaintzen zituen ixtripuetarik eta ojoinetarik; bainan laborantzaz edo nekazaritzaz ere sustengatzen zuen..eta laket omen zitzaion ohora zezaten mendien eta mendixken gainean” Lafittek dioenez⁴².

Ikus ditzagun lehendabizikoan lehen mailako ezaugarriak, “kerkur” edo “hermes”ekin harremanetan sartzen dutenak.

1. Aberria.

Arkadiako Zilene mendia izan da Hermesen sorlekua. Arkadia abelzain eta nekazari kultur zaharren atzerapen lekua da. Han jaio da Hermes hazien da eta laborantzaren babestailea.

2. Izena.

Hermesen izenak “hermai”, harri metekin harremanak ditu eta ba liteke HAR-HER, KAR-KER erroekin eta azkenean gure HAR(RI)rekin zerikusia izatea. Mediterranear eskuarteari dagokio erroa eta leku izen zahar askotan agertzen da, eta ez bakarrik gure inguruan, mediterranear inguru osoan baizik: Karnak, Carrara, Karkemish etab.

3. Abelzain eta nekazarien jainkoa da.

Emankortasunaren emailea. Jakina emankortasuna = ugaritasuna = ongitasuna. Oilarra eta ahuntza dira bere animale-sinboloak.

4. Ibiltari eta erromesen jainkoa.

Bide ondoan egiten dira “kerkur” edo “hermai” izeneko harri metak. Harri bat gehitzen dio harri metari ibiltari urrikariak eta horrela meta berean gordetzen da sekulako. “Kerkur”raren gainean garbikuntza sakrifizioak egiten dira. Harri metak emankortasunarekin zerikusia duela uste izan da.

5. Hermes “psicoponpo”a.

Beheko mundurainoko bidean arimek lagun egiten die jainkoak. Berak hilen arimak epaikariaren aurrean aurkezten ditu.

6. Hauzitegiko balantzaren arduraduna.

Hauzien balantza erabiltzen du, arimen “psicostasis”-ean, edo pisaketan.

7. Hermesen symboloak.

Zutarria da, harri metaren erdian kokatua, edo ta albo batean. Zutarri hutsak dira zaharrenak. Gerokoek jainkoaren burua eta sexua erakusten dituzte. Bere makilak (kerikeion) hilezintasunaren sugeak daramatza. Kapelak (petasos) hegialak ditu, baita oinetakoek ere.

⁴¹ CAESAR, *De bello gallico*.

⁴² LAFITTE, *Erlisione*, 124, 125

8. Indoeuropear aurreko jainkoa.

Heroi zahar jainko bilakatuarena da Hermesen figura. Errotze tinkoa du abeltzain eta nekazarien artean bere kultoak. Horrek indarrez sarturiko arien Olimpon sartzea ematen dio. Hermes 12 handien artean kontatzen da, nahiz eta jainko txikiagotzat.

Bigarren mailako ezaugarriak

Indoeuropear garaileen Olinpoko hierarkizatzetik ateratzen direnak:

Jainkoen morroia da. Heroi garaituarengandik ezin besterik espero. Jainko gazte, alai, merkataritzaren babestaile, eleder, musikaren adiskide, hizkuntza, su eta sakrifizioen asmatzailea. Jite moral gabeko jainko burutsu eta gezurtia da.

Hermes eta Samielen arteko aurkiguneak

Garrantzizkoenak hilen munduarekin harremanetatik ateratzen dira. Hilen arimei lagun egiten diete biek azken hauzia egiten duten epaikariengaino. Biek arimen pisaketa egiten dute. Biak epaikari. Gizartearen garbikuntzarekin zer ikusia dute biek. Batak eta besteak erromes eta ibiltariei geriza ematen diete. Biak emankortasunaren emailleak dira, baita herriaren babestaileak ere gaitz guztietatik. Biak morroi eta mezulariak. Biek biziaren ikurra daramate.

“..la Iglesia en vez de suprimir violentamente costumbres populares profundamente arraigadas en el corazón del pueblo, lo que ha hecho ha sido darles un significado espiritual, para así poderlas conservar y assimilar. Y ciñéndose a la devoción a San Miguel,... la Iglesia primitiva vio en él al vencedor de Satanás y lo tomó por abanderado en su lucha contra el paganismo, valorando su mediación por encima de la de otros santos”⁴³.

III. SUGEA EDO DRAGOIA

“..la historia del dragón vasco encaja de lleno en un esquema universal de la concepción del mundo y del funcionamiento de las fuerzas de la naturaleza que fue común a las culturas antiguas”⁴⁴.

Goñiko zaldunaren kondairan ilunetako printzea da dragoia. Bere agerpenak Samielena ekartzen du penitente saildua irensteko urrana zegoenean.

Hala ere aspaldi aspalditik bizi da gure mendietan suge edo dragoi antzeko jeinua. Muduan zeharreko mitologiaren “orokorra” edo “unibertsala” da sugea edo dragoia. Euskalherrian hiru izenpetan ezagutua izan da: Heren-suge, Sugaar eta Sugoi izenak ematen dizkiote. Has gaitezen lehenetik.

⁴³ Schuster Kardenalak Satrusteguiak El Santuario-n azaldua, 197-198.

⁴⁴ SATRÚSTEGUI, *El Santuario*, 219.

Herensuge⁴⁵ izenaren azalpenak Caro eta Lafittek eman dizkigute. Carok⁴⁶ zera dio:

“El dragón en vasco se llama “Egansuge”, “Erensugue”, “Iraunsugue”, incluso “Lerensugue”. “Egansugue” es serpiente alada, ni más, ni menos. Las otras formas recogidas por diversos autores parecen corrompidas. Pero si a “leren” le damos el valor de “lehen”, primero, podríamos pensar que esta forma se halla relacionada con la idea de “antiguo” o “antigua” aplicado al enemigo antiguo, a la serpiente antigua, el Demonio en suma”.

Eta Lafittek⁴⁷:

“Leherenn (Etienne) jadanik aipatua dugu Mars-en dobladura gisa: bainan hartarik berex ere aurki ditake, eta folkloean nork daki ez dutenentz haren orroitzapena atxiki, Heren sugue eta Leheren sugue hitzetan, naiz leherenn-ek lehen emaiten daukun gogorat eta heren-ek “hirukoitz”, hots hiru burutako sugea. Gure zaharren buruan gauzak nahastuxe ditazke denboraren bortxaz”.

Bi maisuren ideiak laburbilduz hauexek izan daitezke Herensuge izenaren edukiak:

Hegaldun sugea. Herensuge airetik zeharaldatzen da, Urbasatik Aralarra, handik Urbasara berriz edo Lokitza edo Errioxara, Iparraldetik Itsasgorrietara. Egiten duenean, baina, su bilakatua egiten du eta horrela ez du hegal beharrik.

O.E.H-ren ustez **heren** izango zen jatorrizko forma. Handik abiatuz h-dunak agertzen direla maiz Iparraldeko formak erran beharra dago. Aintzi-neuskarán, Akitaniako euskarán, ugariak direla h-dun hitzak, lehen posiziotan batik bat⁴⁸. Hegoaldeko euskalkietan, XIIIgarren mendetik hona, huts bilakatu dela asperenketa⁴⁹,/h/-gabeko formak emanaz. Maizkoa dela r>g trukaketa⁵⁰, baita r>d-rena ere⁵¹. Maizkoa da ere e>i trukaketa⁵². Ba dakigu zuhurtasun osoz ibili beharra dagoela /h/-z edo h grafemaz mintzatzen garenean, ez baita beti etimozkoa h zoriontsu hori.

Leren- formako albokoa protétika bezala uler daiteke, ez bait dago l>h edo h>l trukaketan zertan pentsatzerik. Badirudi artikulu erromanikoaren aglutinazio kasua⁵³, Leherenn jainko izenarekin zer ikusirik ez badu. Edozein kasutan gure sugegandik aldatzen gaitu forma honek.

⁴⁵ Izen honen barianteak in BARANDIARAN, *Diccionario*, 99. Hauexek dira: Erensugue, Herensugue, Lerensugue, Errensugue, Hensugue, Herainsugue, Elensugue, Edeinsugue, Edaansugue, Egansugue, Iguensugue, Iransugue, Ersugue, Sierpe, Dragoi. Cf. ere Satrustegui, *La leyenda*, beste izen hauekin: Azturu, Astru.

⁴⁶ CARO, *La leyenda*, 338-339.

⁴⁷ LAFITTE, *Erlisione*, 127.

⁴⁸ MICHELENA, *Fonética*, 203-224.

⁴⁹ id.

⁵⁰ GAVEL, *Eléments*, 235-236.

⁵¹ GAVEL, *Eléments*, 232.

⁵² GAVEL, *Eléments*, 39.

⁵³ MICHELENA, *Fonética*, 324.

Esandakotik eta laburbilduz hauxe da gure aburua: Jatorrizko forma **heren** izan daitekela eta hortik bilakatu bide direla beste guztiak. Oker dabilela iruditzen zaigu Carok emandako edukia.

Lehengo sugea edo asaben sugea. Oso teoria xarmangarria izango litzai-guke, baina gorago esandakotik **leren** forma jatorria ez dela iruditzen zaigu. Horregatik, nahiz eta damuz, baztertu beharko da berdin oraingo teoria. Beste aldetik oso mito zaharraren aurrean gaudela dirudi, pertsa-juduar dea-brua baino askoz zaharragoa. Hori dela eta ez aproposa izango zen “la serpiente antigua, el Demonio en suma”-kin berdinketa.

Suge hirukoitza. Sintaxiaren aldetik zaila dirudi edukia **herensuge** formari iratxekitzea. Besterik gabe irakurria ‘hirugarren sugea’ ulertu beharko genuke (Cf. **erenegun**, **erengusu**). Ipuietan buru bat baino gehiago izanez agertzen da batzutan Herensuge, maiz hiru, baina maizago zazpi eta are maizago bat bakarrik, Aita Barandiaran, maisuen maisuaren ustez⁵⁴.

Gure ustez beste bidetik etorri beharko litzai-guke irtenbidea. Morvani jarraituz⁵⁵ sugearen izenak ba du uralo-altaitar hizkuntza familiaren suge eta zizarearen izenekin harreman hestua, baita paleo-asiar familiarekin ere. Eta harritzekoago dena, yakutiar izkuntzan dragoiari **ERENKYL** erraten diote⁵⁶ eta yanomamiarrenean **HERESIMA** ‘una especie de lombriz que se encuentra en el humus que recubre las rocas’ dugu, **here** ‘mojado superficialmente’ denez⁵⁷.

Ez dugu ere **ERECTEO** izena (‘lurraren semea’, ‘lurra zirgit egiten duena’) bistatik galdu behar.

Honen arabera, zein izan daiteke **Herensuger**en edukia? ‘Harriaren sugea’, megalitikoan errotutako jeinu batendako aproposa izan daiteken teoria?, ‘Suge hezatea’ ‘hezetasun-emankortasunaren sugea ote’, ‘zirgit egiten duen sugea’, ‘Dragoi’ edo ‘Suge’ besterik gabe ote? Darabilzkigun datu guxtiekin ezinezko aukera dirudi.

Izena paleolitoen garaiekoa izan daiteke, bere mitificazioa oso zaharra ere, Herensugek naturako jeinuaren ezaugarriak dituela gogoan hartzen badugu. Edozein kasutan hizkuntza eta mitologiaren eskuarterik zaharrenari dagokio.

Neolito garaian hil munduaren jeinu zaindariaren ezaugarriak atxekiko zitzaizkion, baita abelzantza eta nekazaritzaren zaindiarenak ere. Azkenean, etsai bilakatua, Aralarren hilgo zen Samielen ezpataz.

Sugaarri buruz zera dio Barandiaranek:

“El nombre Sugaar significa “serpiente macho”, “culebro”.

⁵⁴ BARANDIARAN, *Diccionario*.

⁵⁵ MORVAN, *Les origines*, 248.

⁵⁶ Id. 248.

⁵⁷ LIZOT, *Diccionario*.

Berdin Sugoiri buruz. Filologiaren ikuspuntutik ezin dezakegu ulerkuntza onhartu besterik gabe, nahiz eta egia izan aspalditik ibiltzen dela ulerkuntza gure artean.

Herensugeren figurari zenbait ezaugarri, ezezkoak gehienak, iratxeki zaizkio. Har ditzagun eredutzat Satrusteguik bilduak Urdiainen⁵⁸. Hiru ezaugarri maila berezi beharko dugula dirudi ulerkuntza herrikoian: Zaharrena maila lurreko edo telurikoa. Berriagoa maila magikoa, kristautasunak eraginda, hein batean gutxienez. Hirugarrena orozkaindikoa.

- 1 "Vive en el interior de la tierra y se comunica con el exterior a través de las simas. Se traslada en forma de llama luminosa desde la habitación de invierno a la de verano. Puede identificarse con las funciones de Mari. Influye en las condiciones meteorológicas y en el rendimiento de las cosechas. Hay conjuros especiales para neutralizar sus efectos perniciosos. Puede ser el símbolo de las fuerzas de la naturaleza.
- 2 El dragón se convierte en monstruo temible. Se enfrenta abiertamente al hombre y exige víctimas humanas, que para evitar males mayores, le proporcionan diariamente, por sorteo, los pueblos inmediatos al antro de la bestia. Los esforzados que consiguen vencer en la lucha son siempre héroes anónimos, tales como pastores, guerreros o chicos del pueblo. Se recurre al talismán, siendo el más notable el huevo mágico.
- 3 La leyenda reviste ahora carácter transcendente. El Dragón se relaciona con el demonio. El héroe deja de ser anónimo y se convierte en personaje ilustre..."

Aintzinako kondairari datu berriak iratxekitzen zaizkio Erdi Aroan, Goñiko zaldunaren kondaira bilakatu arte. Ezaugarri positiboetatik, neutroetara eta negatiboetara oso bilakabide argia ikusten da. Heroe gaindituaren bilakabide berbera dirudi. Mitologia berriek aldegindakoak, hala ere, Euskalherri osoan hartu izan zuen kultoa lehenagoko aldietan, Bizkaiatik Elo eta Oibarreraino, Aralarretik Zuberoraino.

Sugearen mitologian beste suge bat, zenbait aldetatik zaharragoa, ezaugarri hoberenekoa ezagutarazten digu Aita Barandiaranek⁵⁹. Bigarren suge hori Bizkaiako Jaunen lehen asaba egiten da, Mundakako printzemekin eztaientatik. Gizonezkoa da, Mari, lurraren jainkosaren senarra. Lurreko banean bizi da jainko edo jeinu hau, handik zenbait leze eta kobatatik lurraren azalera agertzen da. Haietarik bat Balerdin, Aralarreko mendikatean dago. Ba da Aralarren beste leize eta koba ospetsu batzu. Garrantzirik haundiena izan du gure artean leizeetako gaiak: infernuko bidea dira, jeinu eta dragoien bizilekua, lamien etxea, sorginen biltzeko lekua etab⁶⁰.

⁵⁸ SATRÚSTEGUI, *La leyenda*, 38-39.

⁵⁹ BARANDIARÁN, *Diccionario*, s.v. Herensugue, Sugaar, Sugoí.

⁶⁰ SATRÚSTEGUI, *El mundo subterráneo*.

Esandako aipaera “zaharrago” honetan etxeke jaun, biziaren eramaile, leinuen sortzaile, barneko munduaren biztanletzat agertzen zaigu sugea.

Gogoarte megalitiko batean, Wölfel⁶¹ dioenez, hilen sugea, arimen sinbolo eta euskarria da beti sugea, baita etxeke sugea, etxearen asaba sortzaile arimaren euskarria delako. Aintzinako orakulozko jainua orakulo olimpi-ko berri batek aldeginga den nonnahi, hilen sugea agertzen da: Erekteo, Atenasko akropolisaren jauna Ateneak aldeginga izana. Erekteo bertakoa, lurra- ren semea, indarrez sartutakoek jainu garaitua egiten du kondairak. Berdin Eriktonio kasuan. Bi kasutan sugea agertzen da.

Jerusaleneko oso kultu landuan sartu zen sugeari gurtzea. Han, brontzez eginda, Yahveh, bizi eta osasunaren emailearen sinboloari bezala gurtzen zaio⁶². Basamortuan zeharreko abiaduran Yahvehek agindutako brontzezko suge kanpamenduan jasoari bakarrik begiratzuz sugeen ausikiaz sendatu zen Israelgo herria⁶³.

Ekialdeko kultura zaharrean garrantzizko betebeharra du suge biziaren emaileak. Aintzinsumeriar irudiak makila suge kirimilduez erakusten digu. Ningizzida, biziaren jainkoari emandako ontzi batean bi suge agertzen da⁶⁴. Hermesek “kerikeion”ek ba daramatza, baita berriago den Eskulapio, osasunaren jainkoaren sinboloak ere. Indiako hegoaldean “naga” izeneko jainu “veda” aurrekoak sugearen itxuraz agertzen dira⁶⁵.

Aintzinako jainua asabatzen gurtua, bizilekua santutegi megalitikoan duena, bizi eta hilezintasunaren eramailea, mito berriek alde egin eta figura gorrotagarri eta ahantzigarri bilakatu da. Herri kristautatuak, kultuzko harri handiak, kultuzko euskarria izan direnak, bota eginez desegiten saiatzea da geratzen zaion irtenbide bakarra.

IV. “LEKU GARAIK”

Aralarreko santutegia 1.230 metrotan da, garrantzizko gorunean mendikate inguruko herrien arauka. Goiera berdintsuan, gutxi gora behera, Izagako eliza. Bi menditan, argiroago Aralarrekoan, kulto jatorrizko megalitiko eta askoz zaharrago bati, bere hazienda udan Aralarreko gainetara eramaten eta handik udazkenean edo neguan, elurren agertzearekin batera ibarretara beharatu duen herri abeltzain eta nekazari baten kultuari jarraipena ematen dio Samielen kultoak. Ibar eta mendiez jabetzen den herriak garaierak aukeratu hilak ehortzeko, gero han bertan asaben gogora eta gurtzeko.

Aralar mendia leku teofanikotzat izatea zilegi zaigu, hango zeruan aurkezten baitzaio bere herriari talde sortzailearen sugea. Asabei kultoan pentsatzen bultzatzen gaitu denak, eta agian lurralde horietaz jabetzen den gizartea sortzaileari kultoan.

⁶¹ WÖLFEL, *Las religiones*, 322.

⁶² HAAG, *Diccionario*, 1.833.

⁶³ Biblia de Jesuralén.

⁶⁴ HAAG, *Diccionario*, s.v. Serpiente de Bronce.

⁶⁵ REGAMEY, *Las religiones*, 156.

Biblian izaten ditugun “Leku garai”etako (hebraieraz bamot) kultoari buruzko berriek goiera hauek Jainkoaren agerkunde berezien lekutzat aurkezten dizkigute: Moria ‘Yahvehen agerkundearen mendia’⁶⁶. Hala ere maizkoak dira “bamot” horietan “masseba” izeneko zutarriak. Kultuzko barrutian hilen kulto zaharraren aztarna, arimen euskarri, oroitgarri eta hilendako errituzko sakrifizioen mahaitzat uler daitezke bakarrik.

“Leku garai” (haiei buruzko lehen berria Genesis 22.2 pasartean)⁶⁷ haue-tako kultoak Samuel eta Salomonen egunetara arte dirau, kulto ofizial bezala eta are gehiago Iparraldeko Erresuman, Garizingoa eredu.

Behe Mesopotamiako zelaian terrazen gainean iganarazten ditu bere santutegiak Sumerrek, artezko “leku garai”, jainkoaren gelaz burututako dorrekin, agian beren ezezagun aberriko mendietako santutegien oroipenzat: “ziqqurat” da⁶⁸. Amerikar kultura asko eredu berdintsuei jarraituko zaizkie⁶⁹.

V. ONDORIO GISA

“No es ninguna profanación por supuesto, ni supone irreverencia alguna pensar que Aralar contaba con su propio culto ya antes de la Era Cristiana. Una obra de tal envergadura supone un esfuerzo gigantesco dadas las dificultades de acceso y los precarios medios de que disponían para el transporte de materiales, y únicamente se explica la iniciativa admitiendo la existencia de motivaciones profundas muy arraigadas en el pueblo. No cabe pensar, por supuesto, en razones prácticas de pastoral. El altar hubiera estado en función de la atención a los fieles, dentro o muy cerca de los poblados recién evangelizados, y no hubieran recurrido a uno de los puntos más agrestes de la geografía circundante”⁷⁰.

Leku anitzetan zenbait jainko hil-munduarekin erlazionaturen kultoa Samielen kultoak ordezkatua dela dakigu datu fidagarriez. Egiptotik Atlantiko itsasoraino, gnostikoek bultzatua izan da prozesua lehendabizikoan, gero prozesu horrek behe imperioan, baita longobardoen erresuman eta karoldar imperioan jarraia izan duelarik ere. Mito zaharrak baztertzekotan, antzeko ezaugarriak dituen mito berria sartuz kultuzko leku garaietan ezarri da erlijio berria. Hori dela eta Aralar eta Izagako mendietan emandako kultu ordezkatuaren zenbait ezaugarri igartzera ausartuko gara.

Aralar, karoldar garaiera arte, izan bide da asaben erlijioarendako gordelekua, bere garaiean Greziako herrien mediterranean kulturarendako Arkadia izan zen bezala. 816 urteko udan, Wadi Arun guduan “matxu” ezkristautu-tuen presentzia, kristauen aldean, ezagutaratzen digute arabiar kronikariek⁷¹. Zonalde ezkristautatuak zituen garai horretako Pamplonako erresumak.

⁶⁶ HAAG, Diccionario, s.v. Culto en los altos lugares.

⁶⁷ Biblia de Jerusalén.

⁶⁸ SCHNEIDER, *La religión*, 396-400.

⁶⁹ HAMPL, *Las religiones*.

⁷⁰ SATRÚSTEGUI, *El Santuario*, 202.

⁷¹ LACARRA, *Historia*, 55.

Han eman bide da hilendako kultu bizia, ehorzpen eta oroitzarri megalitikoaren garrantzizko bilketa dela eta. Kultu honek asabek oroitzen eta haiekiko harremanak aipatuko zituen, horretatik pertsonendako osasuna, emakume, hazienda eta lantzeendako emankortasuna, hitz batez, bizi eroso batendako behar diren ondasunak eta behe munduko bizirainoko pakezko iraganbidea hartu itxadonez.

Kultu honek erreferentziarik gorena izan bide zuen heroi zaharrari kultoan Euskalherri osoan, baina Aralarren batik bat. Mendikate honetan gorde da garai ez urrunetara arte kultu honen oroitzapena. Ondoko ezaugarriak igarri ditzakegu heroe edo jeinu honengan:

Naturaren jeinua da eta naturaren zikloari jarraituz Mendebaleko Itsasgorrietan edo Hegoaldeko Lokitz eta Errioxako zonaldeetan neguan ostentzen da, gero udaberriarekin batera berriz Aralarren agertzeko. Gure hizkuntza hurbilketak oker ez ba dabilta paleolito garaian sar ditzake erroak gure jeinuaren izenak. Ez dakigu berriz haren mitifikazioa noizkoa den, nahiz eta aintzinasun handikoa duela susmoa izan.

Sugearen eran aurkezten da, Herensuge, Sugaar edo Sugoi izenak hartzen dituelarik. Lurraren azal eta barnekotik ibiltzen den animalia neguan ostentzen eta udaberriaren agertzen da, natur-zikloaren eredu argia delarik. Herriko sinesmenaren arabera hilezina da, sugea bezala, gaztaro betierekoaren sinboloa. Bide luzeak sutan bilakatua egiten ditu eta handik etor lekiok etxeko suaren babestailea izan. Batzutan suzko igitaiaren antza ematen du, nekazaritzaren jeinu babestailea dela oroitarazteko.

Lurreko printzemekin eztaietatik, Aralarren gurtu izan eta gurtzen duen gizartea emaitzat eman duen gizonezkoa da, arbasoen aita.

Kulturazko heroiak da. Berak eman bide dizkio herriari legeak, egutegia, sua, hizkuntza. Berak erakutsi bide dizkio abeltzantza eta nekazaritza.

Buruaren gainean biziaren symboloren bat darama.: Ahaleko koroa?, hilargi edo eguzkiaren ikurra?.

Gainerako hilak bezala, lurraren barnean bizi da. Bere bizi Hilargiak argitzen du, "guezko"en jauna da. Baina jainkoa denez ondorengoaren bizilekura, lurrera atera daiteke sakontasun zundaezinezko koba eta leizeetatik, "egunezko"engana, eguzkipean bizi direnengana bere jaularitza hedateko.

Bere semeak erraten direnen gizartea gerizatzen du garaieratik. Bizi eta osasunaren babestailea da haurzarotik zahartzaroraino. Emakumeari emankortasuna eta familiari ondorengo luzea ematen dizkie berak.

Bide eta ibiltariei geriza ematen die, hilari behe-mundurainoko bide la-sai eta paketsua emanez batik bat.

Ereintza edo uzta aroan garbikuntza sakrifizioak egiten zaizkio, aker beltza "emisarius", gizartearen hutsuneen eramaile denez jainkoa berriz aldekoa dakion.

Ohianak, larreak, hazienda eta pentzeak gerizatzen ditu. Haziendaren erditze eta pentzeen ereintzaren babestailea da bera. Behe munduko ondasu-

nak lurreko azalera jasoarazteko gaitu bakarra da. Berarengana zuzendu bide ziren, eguzkiarenpean bizi direnen eskaera eta otoiak eramanez, hilen ofizio onak.

Naiz eta asaba izan faboragarri ez izatetik kalterik handienak etor lekizkioke gizarteari.

Har lezaken izen generikoa LOS (Losa, JuandeLOSsaihets), LOX (Loxa), DOSS (Alardoss), DOST (Alardost), OST, UST, ORTZ eta URTZ (Urci) izan liteke.

AZKENEKOTZAT

Gizatalde ezkristautatu "lotsagarri"en deusestatzera bultzatuko dituzte Pamplonako dynastia jaioberriak barne eta are gehiago kanpoko eraginek. Elkarren arteko betebeharrak politiko eta erlijioso bati indar guztien eranspena izan bide da berehalako helburua, karoldar ereduari jarraituz, Al Andalus alde batetik eta Karoldar Imperioa bera bestetik ahal den heinean urrunak edukitzeko. Eta betebeharrak horretan ezin Samielena baino ikur hoberik zabaldu. Gargano, Tanzania edo Mont Saint Michel indartze eta batasun leku garaiak egin dituzte longobardo eta karoldarrek. Zergatik berbera ez egin Aralarren?

ERABILITAKO LIBURUEN ZERRENDA

- ARAMBURU M., "El dance o paloteado en la Ribera Meridional de Navarra". *CEEN*, 47. Príncipe de Viana. Pamplona, 1986.
- ARRAIZA, J., "Un catecismo del siglo pasado (1837) sobre San Miguel de Aralar". *CEEN*, 56. Príncipe de Viana. Pamplona, 1990.
- ARRARÁS, F., "Danzas de Navarra". *CEEN*, 9. Príncipe de Viana. Pamplona, 1971.
- BARANDIARÁN, J. M., "Diccionario ilustrado de mitología vasca". Obras completas de B.I. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1972.
- BARANDIARÁN, J. M., "Las cavernas prehistóricas en la mitología vasca". Obras completas de B. I. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1972.
- BARANDIARÁN, S., "El dance de Cortes": *Príncipe de Viana*, 82-83 (1961).
- BARANDIARÁN, VALLESPÍ. *Prehistoria de Navarra*, Príncipe de Viana, Pamplona, 1984.
- BIBLIA DE JERUSALÉN*, Desclée de Brouwer, Bilbao 1975.
- BIBLIOTHECA SANCTORUM*, Instituto Giovanni XXIII de la Pontificia Universidad Laterana, Citta Nuova, Roma, 1961.
- CAESAR, C.I., *De bello gallico*, Gredos, Madrid, 1975.
- CARO, J., "La leyenda de D. Teodosio de Goñi", *CEEN* 3, Príncipe de Viana, Pamplona, 1969.
- CORDERO, L., *Diccionario quichua. Quichua shimiyug panca*, Corporación Editora Nacional, Quito, 1989.
- DIEZ MACHO, *Apócrifos del Antiguo Testamento*, 5 vols., Ediciones Cristiandad, Madrid, 1983.
- GAVEL, H., *Eléments de Phonétique Basque*, RIEV, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969.
- GUERBER, H.A., *Grecia y Roma. Mitos y leyendas*, M.E. Editores, Madrid, 1995.
- HAAG, VAN DER BORN, AUSEJO, *Diccionario de la Biblia*, Herder, Barcelona, 1987.
- HAMPL, "Las religiones de los mejicanos, mayas y peruanos": *Cristo y las religiones de la tierra*, BAC, Editorial católica, Madrid, 1960.
- IZENGABEA (XVIIgarren mendekoa?), Gozos del arcángel San Miguel, Untziti, Izagaondoa eta Ibargoiti ibarretan kantatuak.
- IZENGABEA (XIXgarren mendekoa), Aralarreko Aingerua agurtzeko kanta.
- KAESTLI, E et CHERIV, P., *L'évangile de Barthélemy*, AELAC, Brepols, 1993.
- LACARRA, J.M., *Historia del Reino de Navarra I*, Príncipe de Viana, Pamplona, 1972.

- LAFITTE P., "Erlisioe paganoak eskualde hauietan": *CEEN 14*, Príncipe de Viana, Pamplona, 1973.
- LIZOT, J., *Diccionario yanomami español*, Trad. R. Lizarralde, Universidad Central de Venezuela, Caracas, 1975.
- LÓPEZ, T., "Contribución a un catálogo de ermitas de Navarra": *CEEN 11*, Príncipe de Viana, Pamplona, 1972.
- MICHELENA, L., *Fonética histórica vasca*, Seminario Julio de Urquijo, San Sebastián, 1985.
- MORELLI, E., *Ascensión d'Isaïe*, AELAC, Brepols, 1993.
- MORVAN, M., *Les origines linguistiques du Basque*, Presses Universitaires de Bordeaux, Bordeaux, 1997.
- REGAMEY, C., "Las religiones de la India": *Cristo y las religiones de la tierra*, BAC, Editorial católica, Madrid, 1960.
- RIPA, P., "Monumentos megalíticos de Navarra": *Trabajos de arqueología de Navarra*, Príncipe de Viana, Pamplona, 1991-92.
- ROSE, H.J., *Mitología griega*, Labor, Barcelona, 1973.
- RUIZ, D., *Padres apostólicos*, BAC, Editorial católica, Madrid, 1950.
- SATRÚSTEGUI, J.M., "Reminiscencias del culto precristiano a San Miguel": *CEEN 6*, Príncipe de Viana, Pamplona, 1970.
- SATRÚSTEGUI, J.M., "La leyenda del dragón en las tradiciones de Urdiain": *CEEN 19*, Príncipe de Viana, Pamplona, 1975.
- SATRÚSTEGUI, J.M., "El Santuario de San Miguel de Excelsis. Pasado y presente de una tradición popular": *Santuarios del País Vasco y religiosidad popular II. Semana de estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco*, Caja de Ahorros de Álava, Vitoria, 1982.
- SATRÚSTEGUI, J.M., "El mundo subterráneo en las tradiciones populares": *El mundo subterráneo en Euskal-Herria 63*, Sendoa, Lasarte San Sebastián, 1997.
- SCHNEIDER, "La religión de los sumerios y acadios": *Cristo y las religiones de la tierra*, BAC, Editorial católica, Madrid, 1960.
- URANGA, ÍÑIGUEZ, *Arte medieval navarro I. Arte prerrománico*, Aranzadi, Pamplona, 1971.
- WÖLFEL, J., "Las religiones de la Europa preindogermánica": *Cristo y las religiones de la tierra*, BAC, Editorial católica, Madrid, 1960.